

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko diputatuaren 66/2023 Foru Agindua, abuztuaren 21ekoa, Sobrongo zundaketako hornidura hodia berritzeko proiektuaren ingurumen inpaktuaren adierazpena egiten duena

2023ko martxoaren 17an, foru aldundi honetako Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak idazki bat bidali zuen, eta, harekin batera, "Sobrongo zundaketaren hornidura hoditeria berritzeko proiektua eguneratzeko proiektua" eta dagokion ingurumen inpaktuaren azterketa (IIA), baita espedientean dagoen informazio gehigarria ere, ingurumen inpaktuaren adierazpena egin dadin. Proiektuari ingurumen inpaktuaren ebaluazio arrunta egin behar zaio, eta Arabako Foru Aldundiko Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saila da ingurumen organoa.

Erreferentziako proiektua proiektu honen eguneratzea da: "Sobrón sistema urez hornitzeko proiektuaren lehenengo proiektu banaketa. Sobrongo zundaketa-presa-Sobron hornitzeko biltegia tarte, Arabako Lurralde Historikoan". Proiektua URA-Uraren Euskal Agentziak idatzi zuen, eta ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren izapidea egin zitzaion. Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2019ko martxoaren 13ko ebazpenaren bidez, URAREN proiektu horren ingurumen inpaktuari buruzko txostena egin zen. Txosten horretan zehazten zenez, "ingurumen inpaktuaren ebaluazio arrunta egin behar zaio, ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzakeelako", eta ingurumen inpaktuaren azterketaren irismen dokumentua erantsi zen I. eranskinean. Aipatzekoa da, ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak txostena egin zuela kontsulta fasean, 2019ko otsailaren 4an, eta txosten hori kontuan hartu da IIAn.

"Sobrongo zundaketaren hornidura hoditeria berritzeko proiektua eguneratzeko proiektuaren" sustatzailea Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua da, eta 2019ko martxoaren 13ko ebazpenari jarraikiz, proiektua ingurumen inpaktuaren ebaluazio arruntaren prozeduraren mende dago. Prozedura hori Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2003 Legeak eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeak arautzen dute.

Erreferentziako proiektua honela aldatu da URAk landutakoarekin alderatuta:

- Abiapuntuko proiektutik ezabatu egin da URAk 2019an egindako zundaketaren egokitza-penari buruzko guztia eta hasieran aurreikusitako buruko ponpaketa.
- 0+360 KPtik 0+460 KPra arteko tartean trazadura aldatzea (jatorrizko proiektuaren KPak hartuko dira kontuan); beraz, trazadura A-2122 errepidearen eskuinaldetik igaroko da, urtegiaren ondotik, eta, horrela, ingurune horretan dauden espezie bereziei ez die eragingo: Haritz kanduduna (*Quercus robur*) eta sanjoan iratzea (*Osmunda regalis*).

2023ko martxoaren 17an, ALHAOren 32. zenbakian, jendaurrean jarri zen "Sobrongo zundaketaren hornidura hoditeria berritzeko proiektua eguneratzeko proiektua" eta haren ingurumen inpaktuaren azterketa, eta 2023ko martxoaren 21ean, "eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsultak egiteko fasea" egin zen, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. eta 37. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Ebazpen honek oinarri duen ingurumen inpaktuaren adierazpenaren txostena Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak eman zuen 2023ko uztailaren 18an (23/56 espedientea).

1. Proiektuaren xedea. Proiektuaren eremua. Proiektuaren ezaugarrien laburpena. Aztertutako aukerak

1.1. Proiektuaren xedea.

Sobrón I zundaketa Lantarongo (Araba) udalerriaren mendebaldean dago, 515 m-ko kotan, 590 m-ko zundaketa sakonerarekin, eta, gaur egun, 116 l/s-ko emaria du. Zundaketa horren inguruan Sobrón II zundaketa dago, 555 m-ko kotan, 1.516 m-ko sakonerarekin eta 5,5 l/s-ko emariarekin.

Sistema horri esker, bi zundaketen emariaren zati txiki bat aprobetxa zitekeen Sobrón, Bergüenda, Fontecha eta Larrazubiko gunek hornitzeko, guztiak ere Lantarongo udalerrikoak:

- Sobrón I zundaketatik Bergüenda, Fontecha eta Larrazubi hornitzen dituen 125 mm-ko zuntz-zementuzko hodi bat abiatzen da.

- Sobrón II zundaketak Sobrón herri berria hornitzen du, aurrekoarekiko paraleloa den bigarren hodi baten bidez. Zuntz-zementuzkoa da, eta 100-125 mm-ko diametroa du, tarteen arabera.

Gune horien hornidurak kalitate eta kantitate arazoak ditu, edateko uren araztegiarik ez dagoelako eta sarea egoera txarrean dagoelako eta sarritan hausten delako.

Proiektuaren xede den jarduketa arazo horiek konpontzeko hornidura eskema zabalago baten parte da, aipatutako lau guneei eta etorkizunean Sobron sisteman sar litezkeen beste batzuei uraren kalitate eta kantitate nahikoa bermatuz.

Hornidura eskema hori osatu ondoren, edateko uraren eskaerei erantzutea aurreikusten da, bai Sobrongo zundaketen bidez hornitzen diren lau biztanleguneei (Sobrón, Bergüenda, Fontecha eta Larrazubi), bai gaur egun beste ur bilketa batzuen bidez hornitzen diren beste gune batzuei (Lantarongo udalerriko gainerako guneak, Lantarongo industrialdea, Gaubeako Espejo gunea eta Erriberabeitiko Ribabellosa gunea eta industrialdea).

Lehen mailako sare berriaren eskema osoak, oro har, honako elementu hauek jasoko lituzke:


- Ur gordinaren hodi bat, behar bezala funtzionatzeko gaituta dagoen Sobrón I zundaketatik Bergüenda inguruan kokatutako EUTE berri bateraino eta horren goi biltegiraino.
- Ur tratatuaren hodi nagusi bat, EUTetik Ribabellosako linea amaierako biltegiraino.
- Guneak ur tratatuz hornitzeko adarrak.
- Udal biltegi berriak, gaur egun biltegiarik ez dagoen gunetan, dagoen biltegia nahikoa ez denean edo kontserbazio egoera txarrean dagoenean.

Proiektuan ur gordinaren hodiaren lehen zatia sartzten da, 3.032 m-ko luzerakoa, hargunearen obratik Sobrongo egungo biltegiaren inguruetaraino. Proiektu honetan definitutako hoditeria Sobrongo La Playa auzotik Larrazubi-Fontechako biltegi berrira artean dagoeneko eginda dagoen tarteari lotuko zaio.

1.2. Proiektuaren eremua.

Proiektua Sobrongo Administrazio Batzarraren eremuan kokatzen da, Lantarongo kontzejuan, Añanako Kuadrillako eskualdean, Arabako Lurralde Historikoaren hego-mendebaldeko ertzean eta Burgosko probintziaren mugan. Ebro ibaia kontzejutik igarotzen den tartearen ondoan kokatzen da proiektua, A-2122 errepidearen ondoan.

Irudi honetan proiektuaren eremu geografikoa ikus daiteke. Zirkulu gorri batez nabarmentzen da Arabako hego-mendebaldeko eremua:




1.3. Proiektuaren ezaugarrien laburpena:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan jasotzen denez, proiektatutako hodia 500 mm-ko diametroko PVC orientatuzkoa da, oro har; izan ere, hodiaren guztizko 3.032 m-etatik 2.754 izango lirateke material eta neurri horietakoak, eta gainerako 278 m-ak, berriz, sarrailaz itxitako 500 mm-ko burdinurtu nodularrezkoak.


Trazadura osoan 17 kutxatila aurreikusi dira: hutsaren aurkako 8 kutxatila, ura husteko 6 kutxatila, emaria neurtzeko bat hasieran, atzera ezineko bat erdian eta lehendik dagoen sarearekin lotzeko beste bat amaieran.

Hurrengo irudian, hornidura hoditeriaren trazadura markatu da gorriz. Trazadura ia osorik igarotzen da Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko (ES21110024) Kontserbazio Bereziko Eremuko (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuko (HBBE) babestutako eremutik eta Ebro Ibaia KBEko (ES2110008) eremu oso zehatz batetik. Gune horien mugan dago jarduketa, A-2122 errepidearen eta Sobrongo urtegiaren ondoan, ingurune antropizatu batean:




Hoditeria berria jartzeko (zati handi bat A-2122 foru errepidearekiko paraleloan doa), zundaketaren eta presaren arteko zati handi batean lur erauzketak egin beharko lirateke. Azterketa geoteknikoaren informaziotik abiatuta, A-2122 errepidearen ezkerreko ertzean egin beharko diren lur erauzketak diseinatu dira; guztira 905,56 m luze da tarte hori. Lur erauzketa guztiak burutzeko, 7 m-ko aldi baterako okupazio banda bat egingo litzateke, segurtasunagatik bi makina gurutzatu ahal izateko, lur erauzketen altuera handia baita. Lur erauzketei dagokienez, honako kontu hauek nabarmendu behar dira:


- Gehienak leherketen bidez egingo lirateke.
- Ezponda mailakatuak diseinatu dira, 3-4 m-ko altuerako amildegiekin, gutxienez 5 metroko zabalera duten lan plataformen bidez bereizita, behar adinakoak leherketa zuloak zulatzeko, materiala kentzeko, kargatzeko eta erauzteko. Obren kontratista adjudikaziodunak leherketen proiektua egin beharko luke; halaber, obrak egin bitartean sismografo bat instalatuko litzateke leherketak eragindako bibrazioak kontrolatzeko presaren inguruan, eta, horrela, gehieneko baliu onargarriak gainditzen ez direla egiaztatuko litzateke. Kontrol hori UNE 22-381-93 arauaren arabera egingo da.
- Lur erauzketa egingo den bi tartetan luzera laburreko pistak edo sarbide osagarriak ireki beharko lirateke:
- Lehen tarte 0+223,86 eta 0+322,37 KPen artean dago. Lur erauzketa hori egiteko, sarbide pista bat irekitzea aurreikusi da. A-2122 errepidetik bereizten da hoditeriaren 0+184,47 KPan, eta errepidearekiko paraleloa da, hoditeriaren 0+283,74 KPraino. Pista horri esker, lur erauzketa garaieneko tarteak egin ahal izango dira. Horietara ezin da errepidearen plataformatik iritsi, eta 5,5 m eta 26,02 m arteko altuerak dituzte. IIAn adierazitakoaren arabera, sarbide tarte hori jatorrizko egoerara itzuliko da, eta, era berean, sarbidearen eta ezpondaren buruaren arteko lur zerrenda landareztatuko da 0+184,47tik 0+243,7ra arteko KPetan. Irudi honetan, lur erauzketaren eremuan sarbide berria zein eremutan egingo litzatekeen erakusten da (eremu horren lursaila lehengoratu egingo litzateke):




- Bigarrenik, pista tarte bat berregokitzea ere aurreikusi da, hoditeriaren 1+226,29 eta 1+272,29 KPen artean. Gutxi gorabehera 45 m luze da pista tarte hori. Kasu horretan, lur erauzketak egin diren eremua ez litzateke jatorrizko egoerara itzuliko; asfaltatuta geratuko litzateke. Irudi honetan, berregokituko litzatekeen pista agertzen da:



• Azkenik, adierazi behar da, aurkeztutako planoetara jarraituz, 30 m inguruko luzera duen pista tarte bat berregokituko dela 1+065 KParen inguruan. Irudi honetan, berregokituko litzatekeen pista agertzen da:



Hoditeriaren trazadura 3.032 m luze da guztira, eta 905,56 m luze den zati batean ezpondak atzeraeman beharko dira. Zenbait puntutan 26 m-ko altuerara iristen diren lur erauzketak egin beharko dira, A-2122 errepidea berdintzeko aurrez esku-hartzeak izan diren eremu batean. Horregatik, proiektuak lur soberakinak izango ditu, eta beharrezkoa da soberakinen biltegiak proiektatzea. Egindako lur balantzearen arabera, hondeaketako soberakina 29.765,178 m³ izango litzateke. Hondeaketako soberakin horiek kudeatzeko, obra eremutik gertu, Sobrongo Ur Museoaren iparraldean, soberakinen biltegi bat irekitzea planteatu da (1. aukera). Biltegi horrek 5.000 m² inguruko azalera izango luke, honako irudi honen zirkulu horian erakusten den bezala (gainera, hoditeriaren trazadura gorritz ageri da):



Azkenik, aipatu behar da proiektuak errepideko arekak birjartzea aurreikusten duela, eta dauden lau drainatze obretara hustuko direla. Birjartzeko, sekzio trianguluarreko arekak hartu dira aintzat. Horien posizio erlatiboaren arabera, estali egingo dira edo ez.

1.4. Aztertutako aukerak.

Ingurumen inpaktuaren azterketan, proiektua gauzatzearekin lotutako bi alderdi garrantzitsuetarako aukerak aztertu dira:

- Hoditeriaren trazaduraren aukerak.
- Soberakinak biltegiratzeko aukerak.

1.4.1. Hoditeriaren trazaduraren aukerak.

Lau aukera garatu dira:

— 0 aukera (ez da hautatu): alegia, egungo egoerari eustea. Horrek esan nahi du kalitate eta kantitate arazoak dituen hornidura sistema bat mantenduko litzatekeela, edateko uren arazte-girik ez dagoelako eta sarea egoera txarrean dagoelako eta sarritan hausten delako. Egungo hornidura sistema dela eta, ezinezkoa da hornidura sistema ustiatzea Sobrón-1 zundaketatik. Gainera, gaur egun, Sobrón, Bergonda, Larrazubi eta Fontechako guneak beste sistema independente batzuetatik hornitzen dira, hala nola indar txikiko iturburuetatik eta zundaketetatik, eta, horren ondorioz, agorraldian zisterna kamioiak erabili behar izaten dira hornidura bermatzeko.

— 1. aukera (ez da hautatu): A-2122 foru errepidearen trazadura, euste-horman ainguratuta. Aukera hori baztertu egin da hainbat arrazoiengatik:

— Iberdrolak alegatu du uraldietan edo olatu handiak daudenean hodia urpean gera daitekeela.

— A-2122 errepidearen trazadura bihurtzeko denez, ibilgailuek istripuak izan eta hodiak kalteak jasan ditzake.

— Errepideko euste-hormak aspaldikoak dira eta egoera txarrean daude —hodia horma horietan atxikiko litzateke metalezko egitura baten bidez—.

— Zaila da hodiaren trazadura errepidearen berma eremuan kokatzea, aukera dagoen tarreetan; izan ere, askotan, ia gailurrean edo Sobrongo urtegiarekin muga egiten duen hegalean bertan kokatu beharko litzateke.

— 2. aukera (ez da hautatu): Sobrongo urtegiarekin muga egiten duen mendi hegaletik zuzendutako zulaketa. Baztertu egin da ingurumen arazoiengatik, arazoi teknikoengatik eta mantentze lanengatik. Ingurumenaren ikuspegitik, aukera horren azken inpaktua larritzat jotzen da. Geologiarekin eta lurpeko urekin erasokorra da, eta haren eragin negatibo nagusia akuiferoen kalitatearen aldaketa da, kutsaduragatik; gainera, lohi bentonitikoen erabilerak larriagotu egiten du eragin hori; izan ere, hodiak ipiniko liratekeen lurretan akuiferoekiko kalteberatasun handia dago. Ikuspuntu teknikotik, zaila da, ez bailitzateke posible izango bentosak 500 m-tik behin instalatzea. Eta, mantentze lanen ikuspegitik, ezingo lirateke modu eraginkorrean burutu, tarte horretara ezin delako erraz iritsi.

— 3. aukera (hautatua): Txosten honen 2.3 atalean jaso da aukera horren azalpena. Hoditeriaren trazadura 3.023 m luze da. Zangan joango da, A-2122 errepidearen paraleloan eta urtegiaren ertzetik ahalik eta urrunen. Ezpondan lur erauzketak egingo dira, behar den tokian lekua lortzeko. Lur erauzketen luzera, guztira, 905,56 m-koa da, eta zenbait puntutan 26 m-ra iristen dira.

IIAn jasotakoaren arabera, 3. aukera hautatu da, aukerarik onena delako eta bideragarria delako.


1.4.2. Soberakinak biltegitratzeko aukerak.

Alderdi hori ikertzeko, bi aukera aztertu dira:

— 1. aukera (hautatua): soberakinen biltegi bat irekitzea planteatzen da, presatik 800 m ekialdera, gutxi gorabehera, Sobrongo ur museoaren iparraldean. Los Baños erreka gainean kokatuko litzateke, eta 5.500 m² inguruko azalera hartuko luke. Kokapen horretan betelan bat dago gaur egun, IIAn adierazten denaren arabera.

— 2. aukera (ez da hautatu): aukera hori Sobrongo presatik 150 m ipar-ekialdera kokatuko litzateke, eta 5.600 m²-ko azalera izango luke, gutxi gorabehera. Eremu hori hondakin geldoen biltegi gisa erabili zen 1961ean presa eraiki zenean, eta kutsatuta egon daitezkeen kokaguneen inbentarioan jasota dago 01902-00014 kodearekin.

Irudi honetan, 1. aukerarako hautatutako kokapena arrosaz ageri da, eta 2. aukeraren kokapena, berriez, urdinez:



IIAn jasotakoaren arabera, egindako azterketa kualitatiboarekin, bi aukeren ingurumen eragina oso antzekoa da; aurretik eraldatutako zonetan esku hartzen da, eta orain hobetu egin ahalko dira ingurumenaren aldetik. Baina ikuspegi teknikitik eta segurtasunaren ikuspegitik, egokiagoztat jotzen da 1. aukera, zeren 2. aukeraren kokapenak ziurgabetasun maila handia baitu kutsatuta egon daitekeen lurzoru gisa katalogatuta egoteak dakartzan ondorio tekniko, ekonomiko eta denborazkoei dagokienez.

2. Proiektuari eta ingurumen inpaktuaren azterketari buruzko jendaurreko informazio eta kontsulta fasea

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailaren iragarki baten bidez (ALHAO, 32. zk., 2023ko martxoaren 17koa), jendaurrean jarri ziren “Sobrongo zundaketaren hornidura hoditeria berritzeko proiektua eguneratzeko proiektua” eta haren ingurumen inpaktuaren azterketa, eta ez da alegaziorik jaso.

Jendaurrean jartzearekin batera, 2023ko martxoaren 21ean, “eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsultak egiteko fasea” burutu zen. Honako administrazio sektorial hauek erantzun dute:

URA – Uraren Euskal Agentzia	✓
Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza	✓
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	✓
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza (Arabako Lurralde Ordezkaritza)	
Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza	✓
Naturaren Arabako Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkartea	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumeneko Atala)	

UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	
Arabako Kontzejuen Elkartea	
Aranzadi Zientzia Elkartea	
SEO Birdlife	
Sobrongo Administrazio Batzarra	✓
Lantarongo Udala	
Añanako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	✓
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	✓
Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritza	
Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritza	
Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzua	✓

Ondoren, egindako kontsultei erantzunez jasotako txostenen laburpena jaso dugu (txostenen kopia osoak Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 23-56 espedientean daude):

- URA - Uraren Euskal Agentziak bere txostenean adierazi du Ebroko Konfederazio Hidrografiakoari (CHE) helarazi diola gaia, erreferentziazko proiektuari buruzko informazioa ematea komeni ote den jakiteko.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen zuzendaritzak Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren txosten tekniko bat erantsi du. Bertan adierazten denez, ingurumen dokumentazioan, IIaren 4.17 atalean, zehazki, proiektuaren inguruan dauden kultura ondareko elementu guztiak aipatzen dira, eta 41. zenbakidun balizko arkeologia gunea nabarmentzen da: “Lantarongo Andra Maria tenplua”. Azpimarratu behar da aipatutako tenpluaren interesa zorupea dela, eta, beraz, “obra horiek mapan mugatutako eremuari (berdez adierazitako eremua, kanpoaldeko ertzetatik 15 metro inguratuz) edo handik oso gertu dagoen eremuari eragiten badiote, prebentzio eta zuzenketa neurrien artean sartu beharko da Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 65. artikulua betetzea. Artikulu horrek, gutxienez, aldeztu aurretik arkeologia azterketa bat egitea eskatzen du, eta Arabako Foru Aldundiak erabaki beharko du proiektu arkeologiko bat egin behar den ala ez”.

- Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak honako hau dio bere txostenean: “dokumentazioan adierazten den bezala, ez da aurreikusten proiektuak eraginik izango duenik kultura ondarean; horrenbestez, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren ikuspuntutik ez dago eragozpenik hura izapidetzeko”.

- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendaritzak hainbat gogoeta egin ditu bere txostenean. Horien artean, aztergai dugun eremuko babes zibileko arrisku esanguratsuenak nabarmendu ditu, planteatutako proiektuan neurriak hartzei begira:

- Uholde arriskua: Ebroko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (40. eta 44. artikulua, batez ere), EAEko Ibaiek eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Plana eta Sobrongo Presaren Larrialdi Plana (2002) bete eta kontuan hartu beharko dira.

- Prezipitazio isomaximoak eta drainatzea: Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Uholdeak Prebenitzeko Plan Integralaren Azterlan Plubiometrikokoaren arabera (1992), azterketaren eremuan, prezipitazio isomaximoak 125 eta 175 mm/egun artekoak dira 500 urteko errepikatze denborarako, eta datu hori kontuan hartu behar da drainatzeak diseinatzeko orduan.

— Arrisku sismikoa: Eraikin berrietan kontuan hartuko da irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuak onetsitako eraikuntza sismorresistentetarako araua.

— Basoko suteen arriskua: EAEko landarediari buruzko dokumentazio kartografikoa aztertu ondoren, ondorioztatzen da “obren fasean kontu handiz ibili beharko dela arrisku handiko eremuan lanak egiten diren bitartean, suteak sortzea eta zabaltzea saihesteko”.

— Arrisku teknologikoak: salgai arriskutsuak garraiatzeko arriskua eta SEVESO III. araudia. Proiektuaren azterketa eremuak ez du arrisku teknologikoei lotutako arrisku esanguratsurik.

• Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak bere txostenean ondorioztatzen duenez, “a priori, lanak ez du eragin arkeologikorik, eta, beraz, ez da esku-hartze arkeologikorik behar”. Edonola ere, egin daitekeen edozein aurkikuntza arkeologiko Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari jakinarazi beharko zaio.

• Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa zuzendaritzak, proposamena laburbildu ondoren, natura ondarean duen eragina aztertu du, bi alderditan oinarrituta. Alde batetik, Babes Bereziko Eremuan eta Ibai Sisteman kokatutako soberakinen biltegia eta ezpondaren burura iristeko eta beheranzko hondeaketa egiteko aurreikusitako bi pista osagarriak ez lirateke baimenduta egongo Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura Baliabideak Antolatze Planaren arabera. Bestetik, II Aren 5.4.7 atalean landu den landarediaren gaineko eraginaren kalkuluari dagokionez, adierazi da ez dela kontuan hartu bi pista osagarriei lotutako eragina, ezta soberakinen biltegiara sartzeko pista egokitzeari lotutakoa ere; orduan, beharrezkotzat jotzen da azterketa hori egitea, lehengoratzeko proiektua berregokitze aldera.

• Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak txosten bat egin zuen, eta, bertan, proiektuaren laburpena egin eta jarduketaren eremuko ingurumen merezimendu nagusiak nabarmendu ostean, ondorio onuragarriak ateratu ditu, ingurumen integrazioko neurri batzuen baldintzapean. Hona hemen nagusiak:

— 1. aukerako soberakinen biltegiaren kokapena gaitzetsi egin da, Natura Baliabideak Antolatze Planaren arabera Babes Bereziko Eremuan eta Ibai Sisteman dagoelako eta Sobrongo 7 mendi ibilbideetako 3 oztopatzen dituelako.

— Soberakinen biltegiaren 2. aukera onartutzat jo daiteke, baldin eta Ibai Sistemaren zonakatzeari dagokion eremuak eraginik jasango ez duela errespetatzen bada.

— Proiektuan jasotako pista osagarriak onargarritzat jotzen dira, aldi baterakoak direlako eta ez daudelako eremu konprometituetan; hala ere, horietako batek GR-99arekin kointziditzen du, eta, hortaz, eragindako zatia lehengoratu beharko da. Landarediaren gaineko eraginaren kalkuluan pista osagarriak integratu beharko dira, landaredia lehengoratzeko proiektua berregokitu ahal izateko.

— Era berean, Sobrongo mendi ibilbideetako 2., 3. eta 5. bidexkak lehengoratu beharko dira; izan ere, hoditeriaren trazaduraren eragina jasango lukete.

— Une oro bermatu behar da katalogatutako habitateak ahalik eta eragin txikiena jasatea, eta lehengoratzeko neurri gisa, kaltetutako azaleraren bikoitza lehengoratu beharko da, betiere Natura Ondarearen Zerbitzuaren jarraibideen arabera.

— Espezie exotiko inbaditzaileak desagerrarazteko eskatzen da; batez ere aiantoari jarri behar zaio arreta lanak eragindako eremu osoan.

— Ezin izango da belar sastrakak garbitzeko lanak egin martxoaren 15etik ekainaren 15era bitartean, abifaunari ez eragiteko, salbu eta kasu jakinetan eta berariazko baimenarekin.

— Natura Ondarearen Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio obrak hasi direla.

• Sobrongo Administrazio Batzarrak txostena egin, eta bi gai alegatu ditu. Alde batetik, behar adina informazio jasotzea egiaztatzeke ez dagoela hain erasokorra ez den beste aukerarik 57. zenbakiko onura publikoko mendirako eta haren ingurune natural babestu osorako

hoditeriaren trazadurarako. Bestetik, erabateko desadostasuna agertzen du 1. aukera gisa proposatu eta hautatu den soberakinen biltegirako eremuarekin, iturburu mineral babestu baten gainean baitago; horregatik, 2. aukerako kokapena hautatzea iradokitzen du, hau da, presaren ondoko hondakindegia zaharra dagoen lekua.

3. Proiektuaren eremuko ingurumen elementu nabarmenak. Ingurumen inpaktu nagusiak

Inpaktu esanguratsuenak egikaritze fasetik etorriko dira nagusiki, eta batez ere lur erauzketek, hornidura hodia ordeztzeko zangak irekitzeak, makinak sartzeak eta horien joan-etorriek eragingo dituzte. Jarduketa horien ondoriozko ingurumen eraginak obrei dagozkienak izango dira: lur soberakinak, zarata eta bibrazioak, atmosferaren kalitatea murriztea, hondakinak sortzea, ibaien ibilgura isuriak egitea agian, hala nola Ebrora edo haren inguruko ibaiadarren batera. Honako hauek dira nabarmengarriak: belar sastrakak garbitzea, ibilgailuen joan-etorria eta makinaren funtzionamendua eta indusketak.

Beraz, inpaktu horiek natura interes handiko landaredi azalera garrantzitsuei eragin diezaiekete, baita Batasunaren intereseko hainbat habitati, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE-HBBEari (ES2110024) eta Ebro Ibaia KBEari (ES2110008), katalogatutako fauna espezieei, katalogatutako paisaiari eta ibilbide berdeei ere. Nolanahi ere, jarduketak A-2122 errepidearen eta Sobrongo urtegiaren errepidearen ondoko alboko hormaren mugakide den eremu batean egitea aurreikusten da, eta, hortaz, oso esku-hartze eremu antropizatua da. Natura Sarearen barruan, esku-hartze eta eragin gehien izan dituen eremuetako bat da azpiegitura horien eta ibilgailuak igarotzearen ondorioz.

Nahitaezkoak diren ingurumen lehengoratzek egin ondoren, ustiapen fasearen inpaktuak, oro har, positiboak izango dira, hainbat biztanlegune kalitatezko urez behar bezala hornituko direla bermatuko baita.

Natura 2000 Sarea.

Proiektatutako hoditeriaren ibilbide osoa Natura 2000 Sareko bi naturagune babestutik igarotzen da eta horiekin bat dator; dena den, gunen horien ertzeko eremua da, alegia, eremu antropizatuen, bertatik igarotzen baitira ibilgailuak eta bertan baitaude A-2122 errepidea eta urtegi hori. Batez ere, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa KBE/HBBEaren (ES2110024) barruan dago hoditeria (proiektuko 3.032 m-etatik 2.872 m), baina Ebro ibaia KBEaren (ES2110008) 160 m-ri eragiten dio, proiektatutako trazaduraren amaiera aldera. Ildo horretan, honako araudi espezifiko hau aplikatuko da:

— 47/2016 DEKRETUA, martxoaren 15ekoa. Honen bidez, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) kontserbazio bereziko eremu (KBE) eta hegaztientzako BBEda izendatzen da, hori kontserbatzeko neurriak barne.

— 35/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, Arabako Lurralde Historikoko bost ibai Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen dituenak.

— Foru Gobernu Kontseiluaren 345/2017 Erabakia, ekainaren 6koa, behin betiko onarpena ematen diona Natura 2000 Sareko ES2110024 Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa KBE/HBBE naturagunearen kudeaketa gidalerro eta neurrien agiriari eta Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko III. Planari (EKAP).

— 152/2022 Dekretua, abenduaren 13koa, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko, Valderejoko Parke Naturaleko, Kontserbazio Bereziko Eremuko eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuko Natura Baliabideen Antolamendurako II. Plana (NBAP) onartzen duena.

IIAk, II. eranskinean, proiektuak Natura 2000 Sareko bi naturagune babestuetan izango dituen eraginaren azterketa zehatza jasotzen du. Oro har, egokitatzat jotzen da, eta ingurumen integrazioko neurriak bidezkotzat hartzen dira.

Aurrekoa gorabehera, azpimarratu behar da ez dela aztertu ea proiektua bateragarria den abenduaren 13ko 152/2022 Dekretuarekin (II. NBAP onartzen duena); izan ere, 2023ko maiatzaren 12an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, hau da, sustatzaileak proiektuaren ingurumen inpaktuaren adierazpena egiteko eskatu ondoren. Nolanahi ere, prozedura honen esparruan, Natura Ondarearen Zerbitzuak, Arabako Naturagune Babestuen kudeaketaz arduratzen den aldundiko zerbitzu teknikoak, aldeko txostena eman du, jarduketari dagokionez kontuan hartu behar diren baldintzekin. Alde horretatik, bi gai aztertu behar dira:

Alde batetik, Babes Bereziko Eremuan eta Ibai Sisteman dagoen soberakinen biltegiako hautatutako aukerak NBAParen 17. artikulua 16. epigrafea urratzen du, industriako, eraikuntzako eta azpiegiturako erabileren erregulazioari buruzkoa, jarraian adierazten den bezala. Beraz, alderdi hori txostenaren ingurumen baldintzen atalean lantzen da:

“Debekatuta daude instalazio ez-linealak, salbu eta kontserbazio helburuak lortzeko balio dutenak izan ezik (ikerketa, zerbitzuak, etab.). Nolanahi ere, inoiz ez babes bereziko eremuetan eta Ibai Sisteman. Instalazio horiek organo kudeatzailearen aldeko txostena izan beharko dute, eta organo horrek debekatu ahal izango du instalazio horiek paisaia hauskortasun handieneko eremuetan jartzea.”

Bestetik, artikulua bereko 20. apartatuaren arabera, debekatuta dago pista berriak irekitzea. Ebaluatu beharreko proiektuaren kasuan, esan behar da ez dela pista berririk proiektatu, bai zik eta lehendik zeuden bi pista zati labur egokitzea (zenbait lur erauzketaren eragina jasango lukete), bai eta eremu baterako aldi baterako sarbideak egokitzea ere, lur-erauzketa lanak egin ahal izateko.

Landaredia eta Batasunaren intereseko habitatak.

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da URAk sustatutako “Sobrón sistema urez hornitzeko proiektuaren lehenengo proiektu banaketa. Sobrongo zundaketa-presa-Sobrón hornitzeko biltegia tarte, Arabako Lurralde Historikoan” proiektuari dagokionez izapidetzen ari den eta ingurumen ebaluazio estrategiko arrunt honen xede den proiektua 0+360 KPtik 0+460 KPra arteko tartean aldatu dela (jatorrizko proiektuaren KPak hartuko dira kontuan); horrenbestez, trazadura A-2122 errepidearen eskuinaldetik igaroko da, urtegiaren ondotik, eta, horrela, ingurune horretan dauden espezie berezietan ez die eragingo: Haritz kanduduna (*Quercus robur*) eta sanjoan iratzea (*Osmunda regalis*). Azken hori Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sartuta dago, interes bereziko katalogazioarekin.

Bigarrenik, II.Ako “5.4.7 Landaredia eta Batasunaren intereseko habitatak ezabatzea” atalean, proiektuaren eremuan dauden Batasunaren intereseko habitaten inbentarioa egiten da, bai eta landaredian izango duen eragin iraunkorra eta aldi baterakoa ere. Proiektuko jarduketek intereseko landarediaren 2,55 ha-ri eragingo liokete (2,059 ha Batasunaren intereseko habitatei dagozkie), eta eragin horretatik 0,32 ha behin betiko kuantifikatu dira eta 2,23 ha aldi baterako. Azalera horietan sartzen dira sanjoan iratzea dagoen eremuak, eta sanjoan iratzearen gaineko eragin azalera bi aletara mugatzen da. Proiektu honetan egindako aldaketarekin, aurreko proiektuarekin alderatuta, ingurumenean izango duen eragina oso garrantzitsua izango da. Alderdi hori ontzat jotzen da.

Horri dagokionez, adierazi behar da II.Aren 5.4.7 apartatuan lantzen den landarediaren gaineko eraginak kalkulatzeko ez dirudiela kontuan hartu denik bi pista tarteen egokitzapenari lotutako eragina, ezta soberakinen biltegiak eragin lezakeena ere; orduan, beharrezkoa litzateke sustatzaileak kalkulu hori egitea, Ingurumena Leheneratzeko Plana behar bezala osatze aldera. Ondorengo apartatuetan aurreikusiko den legez, ingurumen organo honen irizpidea lehengoratu beharreko azalera bikoitza izan dadin eskatzea da, ezabatutako landarediaren azalerari dagokionez.

Proiektuaren eremuan, landare espezie exotiko inbaditzaile hauek hauteman dira: Sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*), panpa belarra (*Cortaderia selloana*) eta ailantoa (*Ailanthus altissima*).

IIAko “6.2.9 Espezie aloktono inbaditzaileen hedapenaren aurkako neurriak” apartatua, espezie horien ugalketaren aurkako zenbait neurri jasotzen dira, zeinak oso egokitzat jotzen diren. Horrez gain, txosten honen azken apartatueta alderdi horri buruzko neurri osagarriak aipatzen dira.

Basafauna.

Eragina izan dezakeen eremuaren ezaugarriak kontuan hartuta, beste inpaktu garrantzitsu bat ere aztertu behar da, hots, basafaunak jasan dezakeena. IIAn zuzen azpimarratzen den lege, proiektuaren eremua interes bereziko eremua da espezie katalogatu hauentzat (bakoitzak bere kudeaketa plana du):

ESPEZIEA	IZEN ARRUNTA	ESPEZIE MEHATXATUEN EAEKO KATALOGOKO EGOERA	KUDEAKETA PLANA
<i>Mustela lutreola</i>	Bisoi europarra	Galzorian	322/03 Foru Agindua, azaroaren 7koa (2003ko abenduaren 5eko ALHAO, 142 zk.).
<i>Lutra lutra</i>	Igaraba	Galzorian	880/04 Foru Agindua, urriaren 27koa (2004ko azaroaren 24ko ALHAO, 136 zk.).
<i>Salaria fluviatilis</i>	Ibai kabuxa	Galzorian	351/2002 Foru Agindua, ekainaren 12koa, 2002ko uztailaren 5eko ALHAO, 75. zk.
<i>Cobitis calderoni</i>	Mazkarra	Galzorian	340/2007 Foru Agindua, apirilaren 18koa, 2007ko maiatzaren 11ko ALHAO, 57. zk.
<i>Aquila fasciata</i>	Bonelli arranoa edo aztore-arranoa	Galzorian	612/2001 Foru Agindua, irailaren 28koa, 2001ko urriaren 22ko ALHAO, 120. zk.
<i>Hegazti nekrofagoak</i>			229/2015 Foru Agindua, maiatzaren 22koa, onesten duena Euskal Autonomia Erkidegoan Europar Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Plana, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek batera idatzia.

Proiektuan jasotako jarduketak, egikaritze fasean, kudeaketa planetan jasotako hizpaketetara egokitu beharko lirateke, eta, horregatik, egokitzat jotzen da IIAko “6.2.12. Fauna eta faunaren habitata babesteko neurriak” apartatuko planteamendua, gutxienez otsailaren 1etik uztailaren 31ra bitartean (ornodun gehien ugalte eta umatze garaia) leherketak saihestu behar diren aldi kritikoari buruzkoa. Leherketek gain, aldi horretan ezin izango da makinaren mugimendu handirik egin.

Zebra muskuiluaren (*Dreissena polymorpha*) presentziari dagokionez, alegia, proiektuaren esparruan dagoen espezie exotiko inbaditzaileari dagokionez, egokitzat jotzen dira haren ugalketaren aurka IIAko 6.2.9 apartatua jaso diren neurriak, eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren desinfekzio eta garbiketako protokoloak betetzeko eskatzen da, zebra muskuiluaren izurritea barreia ez dadin.

Paisaiaren gaineko ondorioak.

Proiektuan jasotako obrak gauzatzeagatik alda daitekeen eremu osoa Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Bikainen Katalogoko 11. zenbakidun “Sobrongo mendiak – Bachicabo” Paisaia Bikaina gisa dago katalogatuta.

Paisaiaren eta landaredi autoktonoaren gaineko inpaktu handiena 230 eta 330 Kpen artean nabariturikoa da. Eremu horretan, *Pinus sylvestris*, *Quercus faginea* eta *Quercus ilex subsp. rotundifolia* espezie nabarmenen zenbait ale kaltetuko dira. Errepidearen ezpondak gauzatzearen ondorioz zati batean aldatuta dagoen eremu batean jardungo da. Ingurune antropizatua da, baina kalitate handiko paisaia du, neurri handi batean, urtegiaren beste aldean, eskuineko ertzean, esku hartzeko eremutik kanpo, dauden harkaitzen ondorioz. Eremu horretan proiektatu dira neurri handieneko lur erauzketak, neurri handi batean jada esku hartutako eremuetan, errepidean lehenago egin zen jarduketa batengatik. 120 m-ko tarte batean egingo diren ezpondak 26 m-ko altuerara irits daitezke.

Horregatik guztiagatik, egokitzat jotzen da IIAko “6.2.16 Paisaian integratzeko neurriak” apartatua jasotzen den planteamendua, sortzen den ezponda berria gehiegi ez erregularizatzeko beharrari dagokionez, eta ezinezkoa den kasuetan, harriaren zahartze naturalizatuko teknika bereziak aplikatu beharko dira, hura paisaian integratzea errazteko.

Ibilbide berdeak:

Proiektuaren eragin eremutik gertu dauden ibilbide berdeen haritik, GR-99 "Ebroko Bide Naturala" dagoela nabarmendu behar da. Izan ere, hiru aldiz gurutzatzen du proiektatutako hornidura hoditeriaren trazadurak. Irudi honetan, hornidura hoditeriak (gorria) GR-99an (berdea) sortuko lituzkeen hiru bidegurutzeak biltzen dira:



Ingurumen baldintzen apartatuan, integrazio neurri egokiak ezartzen dira ibilbide berde horren gaineko eraginei dagokienez; Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeei buruzko urtarilaren 23ko 1/2012 Foru Arauan ezarritako erregulazioaren mende dago ibilbide berde hori, eta, aldi berean, Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialean jasota, martxoaren 8ko 9/2023 Foru Arauak behin betiko onetsian (ALHAO, 33. zk., 2023ko martxoaren 20a).

Hidrologia, onura publikoko mendiak eta kultura ondarea:

Proiektuak hidrologiari ere eragin liezaioke; izan ere, trazadura osoa Sobrongo urtegiaren eta Ebro ibaiaren ondotik igarotzen da, eta El Molino errekan bidegurutze bat (zubi bati atxikia) proiektatzen da, bai eta beste bi bidegurutze ere erreka-esteko txikietan. Aurrekoa gorabehera, IIAko 6.2.10 apartatuan hidrologiaren eta azaleko uren kalitatearen babesari buruzko hainbat neurri oso zehatz bildu dira, hala nola iragazte eta jalkitze hesiak, hustubideen, zangen eta dekantazio putzuen babesak, kanaletak eta hormigoi mahukak garbitzeko putzuak, etab. Dena den, sustatzaileak behar diren baimenak izapidetu beharko ditu gai hidraulikoan eskumena duen organoaren aurrean.

Proiektuak 57. zenbakidun onura publikoko mendian (La Torca) izango duen eraginari dagokionez, esan behar da eremu hori Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak arautzen duela; beraz, sustatzaileak haren zehaztapenetara egokitu beharko du eta dagozkion baimen sektorialak izapidetu.

Sustatzaileak oso adi egon beharko du IIAko 4.17 apartatuan jasotako proiektuaren eremuaren inguruan dauden ondare elementuetan eraginik ez sortzeko. Aipatzekoa da 41. zenbakidun "Lantarongo Andra Maria tenplua" Balizko Arkeologia Gunea, proiektutik gertu dagoelako. Sustatzaileak Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari jakinarazi beharko dio obrak egiten ari diren bitartean egin dezakeen edozein aurkikuntza arkeologiko.

4. Ondorioa. Ingurumen baldintzak

“Sobrongo zundaketaren hornidura hoditeria berritzeko proiektua eguneratzeko proiektuaren” espedientearekin lotuta eskuragarri dagoen dokumentazioa aztertu ondoren, eta erreferentziako ingurumen kartografia aztertu ondoren, ondorioztatzen da proiektu horrek ez duela garrantzi handiko ingurumen ondoriozko ekarriko, baldin eta ingurumen integratzioko neurri egokiak ezartzen badira. Oro har, jendaurrean jartzeko izapidea behar bezala egin dela balioesten da, bai eta ingurumen inpaktuaren azterketa ere. Inpaktuen balorazioak inpaktuen presentzia edo gabezia kualitatiboki baloratu du eta inpaktuaren izaerari eta tamainari buruzko arrazoiketa xehea egin du. Eragina jasan dezaketen elementuen balorazioa errealitateari doituta eta errealitatearen arabera egin da, eta ingurumen inpaktuak ebaluatu eta ezaugarritzeko erabili den metodologia zuzena dela uste da. Era berean, obraren ondoriozko inpaktu faktoreak behar bezala hauteman dira.

Beraz, proiektuaren sustatzaileak eskatu beharko dituen baimen sektorialak alde batera utzi gabe, “Sobrongo zundaketaren hornidura hoditeria berritzeko proiektua eguneratzeko proiektuaren” aldeko adierazpena egitea proposatzen da, eta ingurumen inpaktuaren inguruko neurri zuzentzaileak eta/edo ekologia eta paisaia integratzioko neurriak ezartzea. Neurri horiek ingurumen inpaktuaren azterketan jasotako osagarriak izango dira, zehazki, honako apartatu hauetan jasotako gehigarriak: “6. Prebentzio eta zuzenketa neurriak”, eta “Natura 2000 Sarearen gaineko eragina” izeneko III. eranskineko 7. eta 8. apartatuak. Jarraian, proiektuaren sustatzaileak hartu beharko dituen prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurri eta alderdi nagusiak jasotzen dira:

A) Proiektua ebazpen honetan ezarritako zehaztapenei jarraituta egingo da, eta, ebazpenaren kontra ez dagoen guztian, sail honek proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluaziorako aurkeztutako agiriek jasotakoari ere bai. Obrak egitean proiektuari edozein aldaketa eragiten bazaio, hau da, baldin eta obrak egiteak proiektuaren ezaugarrietan edo ekintzetan gorabeherarik badakar eta ingurumenean espero ziren eraginetan aldaketarik eragiten badu, jakinarazi egin beharko da, bai eta baimena lortu ere, ingurumen organo honek onetsi baino lehen.

B) Sustatzaileak nahitaez gauzatu beharko ditu proiektuko ekintzak ingurumen inpaktuaren adierazpen honetan ezarritako ingurumen baldintzetara egokitzeko eta moldatzeko beharrezkoak diren jarduketak, “Sobrongo zundaketaren hornidura hoditeria berritzeko proiektua eguneratzeko proiektuaren” ingurumen inpaktuaren azterketan zehaztutakoez gain. Ingurumen inpaktuaren azterketako agirian zehaztutako lanak gauzatzeari buruzko ingurumen manuak bete beharko dira, zehazki, “6. Prebentzio eta zuzenketa neurriak” apartatuan eta “Natura 2000 Sarearen gaineko eragina” izeneko III. eranskineko 7. eta 8. apartatuetan zehaztutakoak, bai eta ingurumen inpaktuaren adierazpen honetan ingurumena eta paisaia babesteko adierazitakoak ere.

C) Obren aurretiko zuinketa egiteko data bat ezartze aldera, eta obren ingurumen jarraipen egokia egin ahal izateko, obra hasiko dela gutxienez bi aste lehenago jakinarazi beharko zaie Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, bai eta Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa KBE/HBBEa eta Ebro Ibaia KBEa kudeatzen duen foru organoari ere —hots, Arabako Foru Aldundiko Natura Ingurunearen Zuzendaritza-Natura Ondarearen Zerbitzuari—.

D) Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa KBE/BBEko Babes Bereziko Eremuan eta Ibai Sisteman dagoen soberakinen biltegirako hautatutako 1. aukerak II. NBAParen 17. artikuluko 16. epigrafea urratzen du, hain zuzen ere, industriako, eraikuntzako eta azpiegiturako erabilerei buruzkoa. Alde horretatik, ezin da 1. kokaleku hori erabili soberakinen biltegirako.

E) 2. aukerako soberakinen biltegia onargarritzat jotzen da, adierazpen honen ondorioetarako eta aginduzkoak diren beste baimen batzuk alde batera utzi gabe, betiere II. NBAPean jasotako “Ibai Sistema” zonifikazioari dagokion eremua errespetatzen bada, salbu eta alde aurretik betetako eta aldatutako eremuetan sistema horren gainean egin beharreko jarduketak, eta jarduketa horiek eremu horretako ingurumena hobetzera bideratuta badaude. 2. aukera horrek eragin mesedegarria izango luke; horri esker, ingurumena hobetu ahal izango litzateke

gaur egun aurreko isurketen ondorioz degradatuta dagoen eremu batean, Naturagune Babestuaren barruan. Nolanahi ere, 2. aukera hori, osorik edo zati batean, sustatzaileak baztertua izango balitz azkenean, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/HBBE Naturagune Babestuaren eremutik kanpoko aukerak azter litezke. Egoera horretan, 2. aukeran aurreikusitakoa ez den beste edozein kokalekuri dagokionez, baldin eta sustatzaileak soberakinak biltegitratzeko egokitzat jotzen badu, ingurumen organo honek aldeztu aurretik txostena egin eta baimena eman beharko du.

F) Ingurumen inpaktuaren azterketan aurkeztutako ingurumena lehengoratzeko plana URAk sustatutako proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren ingurumenaren agiriari aurkeztutako bera da, eta obra osoaren ingurumena lehengoratzeko irtenbide bat ematen du. Irtenbide hori, oro har, egokia da, baina partziala edo mugatua, eta, beraz, ez da nahikoa. Ingurumena lehengoratzeko plan berriak eremu guztiak hartu behar ditu kontuan, baita ingurumen inpaktuaren adierazpen honetan ezarritako neurriak ere. Hura idazteko, sustatzaileak ingurumen ebaluazio honetarako aurkeztu duen dokumentua erabili behar da abiapuntuko dokumentu gisa. Gainera, Arabako Foru Aldundiko Naturagune Babestuaren organo kudeatzaileak eta ingurumen organoak horri buruzko txostena egin eta baimena eman behar dute, plana gauzatu aurretik. Planak egin behar diren landaketan azalaren kalkulak jaso behar ditu, kontuan hartuta proiektua gauzatzearen ondorioz ezabatuko den landarediaren azalaren bikoitza lehengoratu behar duela. Behin betiko ukitutako landarediak, hoditeriaren trazadurak ukitutakoaz gain, barne hartuko du soberakinen biltegiak (2. aukera) eta sarbideak irekitzeak edo lehendik dauden pistak egokitzeak ukitutakoa ere. Landarediak behin betiko eragina jasan duten eremuak lehengoratzeko lehenetsiko da, bai eta soberakin ez-kutsagarrien biltegiak ukitutako eremua ere. Horrez gain, proiektuaren eraginik jasan ez duten eta Natura 2000 Sarekoak diren eremuetan landaketak egitea proposatu ahal izango dira; dagokion Naturagune Babestua kudeatzen duen foru organoak aldeko balorazioa eman beharko du.

Ingurumena lehengoratzeko lanak honako jardura hauek egitera mugatuko dira nahitaez:

- Lurraren destrinkotze, moldatze eta taxutzea, lur naturalarekiko igarotze eta ukipen guneetan behar bezalako doiketa eta egokitze fisiografikoa lortzeko.

- Lurra ekartzea eta, ondoren, gutxienez 30 cm-ko geruza profilatzea (gutxienez 0,50 cm zuhaitz edo zuhaixka aleak landatzeko aurreikusitako eremuetan); kalitatezko landare lurra izango da, eta lehentasunez proiektuko obretatik beretik etorriko da.

- Lantze eta lur harrotze lanak egitea, eta ondoren fintzea, azalerak behar bezala prestatzeko, ereite eta hidroereiteko.

- Belarkiak eta egurretarakoak ereitea eta hidroereitea. Ereiteko eta hidroereiteko nahasketak, hau da, obrak ukitutako eremuak landareztatze erabiliko direnak, bat etorriko dira eremu horretako baldintza klimatiko eta edafikoetara egokitutako gramineo eta lekadun espezieekin. Horrez gain, nahasteei espezie zurkaren haziak ere gehitu ahal izango zaizkie.

- Zuhaitz eta zuhaixka espezieen landaketetan, eragina jasan dezakeen eremutik hurbil modu naturalean dauden espezieak erabiliko da (*Quercus faginea*, *Quercus rotundifolia*, *Viburnum tinus*, *Arbutus unedo*, *Phillyrea latifolia*, *Salix spp*, *Populus spp*, *Fraxinus angustifolia*, *Fraxinus excelsior*). Lehentasunez, lanen eragina jasan duten eremu guztietan egingo dira landaketak, baldin eta lanak egin aurretik zuhaitz landaredia bazegoen bertan, eta kaltetutako espezie autoktono berak jarriko dira.

Neurri zuzentzaileak eta paisaia integraziokoak ezartzean ingurumen birgaitzearen xede izango diren zonetan egin beharreko landaketan ezaugarriak hauek izango dira:

- Zulaketaren gutxienezko neurria: 0,60x0,60x0,60 m. Bi izardiko landareak, 3 landareren arteko distantzia, hiruzuloka.

- Zuloa kalitatezko lurrarekin bete ondoren, gainazalean txorko bat egingo da, erradioan 40 cm izango dituen eta ildo bitartean altuera 10 cm-koa, eta 10 litro/landareko ureztatzea egingo da.

- Landareak babesteko 60 cm-ko altuera duen hodi babeslea jarri beharko da.

- Landatzeko garaia: abendua-otsaila.

Bermatu egin beharko da landare zurkaren estalkian mantentze lanak egingo direla hasierako ezarpen aldian, behin betiko sustraitu eta ezarriko dela ziurtatzeko. Beraz, jarduketa hauek egin beharko dira: ura falta den garaian ureztatzeak egin, hildako landareak birjarri, zurkaitzak eta oinarrian jartzen diren babesleak aldatu, belar sastrakak garbitu, eta abar. Ekintza horiek ingurumena lehengoratzeko proiektuan sartu beharko dira, eta behar bezalako aurrekontua izango dute, hasierako lehengoratzearen ondorengo 2-3 urteetan izango duten kostua barne hartuta.

G) Proiektuaren eremuan dauden landare espezie exotiko inbaditzaileak desagerraraziko dira, eta batez ere ailantoari (*Ailanthus altissima*) jarriko zaio arreta, baina baita sasiakaziari (*Robinia pseudoacacia*) eta panpa belarrari (*Cortaderia selloana*) ere. Jarduketa eremua bi naturagune babesturen artean dagoenez —horietako bat ibai izaerakoa—, lehentasuna emango zaie landaredi exotiko inbaditzailea kentzeko metodo mekanikoei, betiere teknikoki bideragarria eta eraginkorra bada. Espezie horiek proiektuaren eremuan kenduko dira, Natura 2000 Sareko Naturagune Babestuak kudeatzen dituen foru organoak emandako jarraibideekin bat etorriz.

H) Gutxienez otsailaren 1etik uztailaren 31ra bitartean (ornodun gehien ugalte eta umatze garaia) leherketak egitea saihesteaz gain, ingurumen inpaktuaren azterketan aurreikusten den bezala, belar sastrakak garbitzeko lanak ezingo dira egin martxoaren 15etik ekainaren 15era bitartean, bertako abifaunaren ugalketa aldiari ez eragiteko, salbu eta kasu jakinetan eta Natura 2000 Sareko Naturagune Babestuak kudeatzen dituen foru organoaren berariazko baimenarekin.

I) Obrak hasi aurretik, sustatzaileak berariazko baimena eskatu beharko dio Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, leku honetan sortu ahalko liratekeen eraginekin lotuta: GR-99 “Ebroko Bide Naturala”. Eremu hori Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeen urtarilaren 23ko 1/2012 Foru Arauan ezarritako araubidearen mende dago. Baimen horretan jasota egongo da edonola ere Ibilbide Berdearen funtzionaltasuna ziurtatuko dela, eta gutxienez adieraziko da zer seinale erabiliko diren, debekatuta dagoela horietan pilaketak egitea, eta beharrezkoa dela jarduketek horien gain sortu ahal dituzten kalteak lehengoratzeko.

J) Obren eraginpeko ingurua lehengoratzeko erabiliko da, oso-osorik, eraikuntza lanek eragindako zonen indusketatik ateratzen den landare lurra. Lurzoruko zeruertz organikoa kenduko da modu selektiboan, ondoren lehengoratzeko. Berehala lehengoratu ezin bada, gehienez ere 3 m-ko altuera izango duten sekzio trapezoidaleko masetan bilduko da.

K) Obrek irauten duten bitartean, lubrifikatzaileak edo erregaia biltegitratzeko ontzi estankoa, biltegi iragazgaitzak edo beste sistema batzuk erabiliko dira. Debekaturik dago erabilitakoak isurtzea; baimendutako kudeatzaile bati eman behar zaizkio. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: hormigoi hondakinak, zuntz-zementua duten edo ez duten eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakindegira edo zabortege baimenduetara eraman beharko dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntza eta eraipen hondakinak. Dekretu horrek eraikuntzako eta eraipenetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

L) Lanak egiteko kontratatzen diren langileei naturagune babestuko eremuetan jardutearen arazoei buruzko prestakuntza emango zaie, oro har, ingurumenaren gaineko arriskuak saihesteko jokamolde eta irizpideak txertatzeko lan ohituretan.

M) Eraikuntza lanetan eta ustiapen fasean zarataren arloan indarrean dagoen legerian ezarritako zaraten gehienezko mugak errespetatu beharko dira.

N) Obrak bukatu ondoren garbiketa kanpaina zorrotza egingo da. Proiektuaren eraginpeko eremuan ez da inolako obra hondakinik geratu beharko, eta obrako instalazioak erabat eraitsi beharko dira.

5. Ingurumen Zaintza Programa

Obrak egitean eta funtzionamendu fasean proiektuko ekintzen jarraipena egiteko moduari buruz ingurumen inpaktuaren azterketan adierazitakoez gainera, jarraibide hauek ezarri dira.

Sustatzaileak bere gain hartuko ditu honako hauek: ingurumen inpaktuaren adierazpen honetan jasotako kontrol eta zaintza neurriak eta, hasiera batean aurreikusi ez arren, gero gerta litezkeen narriadurak edo aldaketak zuzentzeko proiektua abian den bitartean aurrera eraman beharreko neurri zuzentzaile osagarriak. Gainera, horiek denak aurrekontuan gogoan hartu beharko ditu, benetan egin ahalko direla bermatzeko.

— Proiektuaren egikaritze fasean zaintza sistema bat ezarriko da Ebro ibaiko eta proiektuaren eraginpeko erreketako uraren kalitatearen aldaketa posibleak detektatzeko, bai makina astunak erabili direlako, bai lur mugimenduekin eta trafiko astunarekin edo beste arrazoi batzuekin lotutako uhertasuna handitu delako. Akuikultura baliabideetarako eta arrain faunarako arriskua dakarren kalitatearen narriadura nabarmena gertatuz gero, zuzenketa eta prebentzio neurri egokiak ezarriko dira, Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoaren arabera.

Sustatzaileak egingo duen proiektuaren eraginpean dauden erreketako eta Ebro ibaiko uraren kalitatearen jarraipenari eta kontrolari dagokionez, uren aldizkako laginak eta analisiak hartuko dira, eta gutxienez hilean bitan egin beharko dira horiek. Lurrak mugitu ondoren higadura elementuen presentzia kontrolatu beharko da.

Analisietan gutxienez parametro hauek erregistratu beharko dira:

— Temperatura	— Oxigeno eskari kimikoa (OEK)
— pH-a	— Nitrogeno organikoa eta amoniakoarena (GKN)
— Guztizko solidoak. Solido esekiak.	— Nitratoak eta nitritoak
— Oxigeno disolbatua	— Fosforo totala (PT)
— Eroankortasuna	— Hidrokarburoak

Egindako laginketak aldizka bidaliko zaizkio ingurumen organoari.

— Lanak egiten diren bitartean, egiaztatuko da bakar-bakarrik plataforman makinak erabili ahal izateko beharrezko zuhaitzak ukituko direla, eta, zuhaitzen bat moztu behar denean, Arabako Foru Aldundiko baso eta ingurumen arloko organo eskudunek baimena eman beharko dute. Halaber, zuinketak egitean, basozaina bertan dagoela markatuko dira obrak egitean eta arrazoituta inausi beharreko adarrak. Jarduketa horiek motozerraz ebaketa garbiak eginez gauzatuko dira eta ondoren ebaketa horietan material orbaintzailea aplikatuko da, “mastic-anti-septiko” motakoa, xede bi izanik: ura sartzea ekiditea eta horrek dakartzan usteltzea eta gaixotasunen garapena saihestea.

— Aurretiaz azterketak egingo dira intereseko espezieen habiak edo babeslekuak aurkitzeko obra inguruko zuhaitzetan. Obretan hegazti nekrofagoengan kalte zuzenik sortzen ez dela egiaztatuko da.

— Obrak amaitutakoan, obraren bukaera dokumentua bidali beharko da Ingurumen Zuzendaritzara. Bertan, eraikuntza lanak egin diren bitartean gertatutako gorabehera guztien berri emango da, bai eta noraino bete diren honako hauek ezartzen dituzten babes neurriak eta neurri zuzentzaileak ere: ingurumen inpaktuaren azterketak, ingurumena eta paisaia lehengoratzeko proiektuak eta ingurumen inpaktuaren adierazpen honek. Era berean, hala badagokio, ingurumen inpaktuaren azterketan eta proiektuan zenbatetsi diren aldaketa aurreikuspenei dagokienez egon diren desbiderapenak antzemateko eta ebaluatzeko txostena egingo du ingurumen organoak. Aurreikusi gabeko eragin negatiboak egon badira edo erasandako azalera zabaldu bada, beharrezko neurri zuzentzaileak eta txosten honetan adierazten direnak ezarri beharko dira.

Horrengatik, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenena. Sobrongo zundaketaren hornidura hoditeria berritzeko proiektua eguneratzeko proiektuaren ingurumen inpaktuaren adierazpena egitea.

Bigarrenena. Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 78.1 artikuluan xedatutakoa betez, ingurumen inpaktuaren adierazpena aginduzko txosten loteslea izango da.

Hirugarrena. Ingurumen inpaktuaren adierazpenak indarraldia galduko du eta efektuak sortzen geratuko da ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita lau urteko epean proiektua egiten hasi ez badira, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 78.4 artikulua betez. Kasu horretan, Lege horren 78.5 artikulua arabera, sustatzaileak berriz ere hasi beharko du proiektuaren ingurumen inpaktuaren ebaluazioaren prozedura, salbu eta indarraldia luzatzeko eskatzen ez badio ingurumen organoari. Gauzak horrela, ingurumen organoak, hala badagokio, ingurumen inpaktuaren adierazpenaren indarraldi epe berria finkatuko du erreglamenduari jarraikiz.

Laugarrena. Ingurumen inpaktuaren adierazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuaren 21a

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen diputatua
AMAIA BARREDO MARTÍN

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA